

behin betiko egiaztatu eta martxan jartzeko akta eman dezan.

Obrak egiteko beharrezko diren udal edo probintzien eskumenpeko baimen edo lizentziak eta gainerako enak errespetaturik, ematen da ebazpen hau, eta ez du salbuesten eskatzailea haiek eskuratzeko obligaziotik. Halaber, inoren eskubideei kalterik egin gabe eta jabetza-eskubideari eutsiz ematen da.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, gora jotzeko errekurtoa aurkez daiteke Berrikuntza eta Energia Sailburuordetzaren aurrean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean, hala agintzen baita 4/1999 Legean. Lege horrek Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko ekainaren 9a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
TXABER LEZAMIZ CONDE.

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4793

AGINDUA, 2008ko uztailaren 9koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Unibertsitate aurreko irakasmiletako euskarazko ikasmaterial inprimatuen laguntza-bideetara dei egiten duena (EIMA I).

Hezkuntza eta Kultura Sailaren uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuak dioena garatuz, abuztuaren 1eko Aginduak (EHAA, abuztuaren 19koa, 122. zk.) honela dio bere 6. artikuluan: «Hezkuntza eta Kultura Sailak behar diren neurriak hartuko ditu ikasmateriala dela medio euskarazko ikasketek ikasleari gastu gehigarririk ekar ez diezaiozten. Beharrezko baliabideak ezarriko ditu, ondorioz, irakasmaita eta jakintzagai desberdinetan geroz eta neurri beteagoan euskarazko ikasliburu eta gainerako ikasmaterialak sortarazteko, eta berorien prezioa erdal ikasmaterialak dutenaren antzekoa izan dadin segurtatuko du. Guzti horretarako, besteren artean, deialdi baten bidez euskarazko ikasliburugintzarako diru-laguntzak banatuko ditu urtero».

efectos de reconocimiento definitivo y la extensión del acta de puesta en marcha.

La presente Resolución se otorga sin perjuicio e independientemente de las autorizaciones, licencias o permisos de competencia municipal, provincial y otros necesarios para la realización de las obras, no relevándose al peticionario de la obligación de obtener las mismas. Así mismo, se concede sin perjuicio de posibles derechos de terceros y dejando a salvo el derecho de propiedad.

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejería de Innovación y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de notificación de esta Resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de junio de 2008.

El Director de Energía y Minas,
TXABER LEZAMIZ CONDE.

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

4793

ORDEN de 9 de julio de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan subvenciones para materiales escolares de niveles no universitarios impresos en euskera (EIMA I).

La Orden de 1 de agosto de 1983 (Boletín Oficial del País Vasco n.º 122, de 19 de agosto) en desarrollo del Decreto 138/1983, de 11 de julio, establece en su artículo 6: «El Departamento de Educación y Cultura adoptará las medidas precisas para que la enseñanza en euskera no suponga un incremento del gasto para el alumnado en razón al material didáctico utilizado. Para ello, arbitrará los medios necesarios tendentes a garantizar de forma progresiva, en los diversos niveles educativos y para las diferentes materias, la existencia de libros escolares y demás material didáctico elaborado en euskera, asegurando que su precio sea análogo al del material publicado en castellano. A tal fin, procederá anualmente, entre otras medidas, a abrir una convocatoria para subvencionar la producción de libros escolares publicados en euskera».

Era berean, 295/1998 Dekretuak, azaroaren 3koak (EHAA, azaroaren 27koa, 227. zk.), honako hau dio, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe-etan erabiltzekoak diren ikasmaterialen gainean: Euskal Administrazioak ezarritako curriculum-markoarekin bat datozela bermatu, hizkuntza taxuz erabiltzeko arauak ongi betetzen direla ziurtatu eta kalitate teknikoaren aldetik ere egokiak izan daitezen zainduko dela.

Hori guztia gogoan izanik, honako hau

EBATZI DUT:

I. KAPITULUA
XEDEA

1. artikulua.– Agindu honen xedea honako hau da: Unibertsitate aurreko irakasmailetako euskarazko ikasmaterial inprimatuei zuzenduriko diru-laguntzak arautu, horretarako dei egin eta finkatutako baldintzak betetzen dituztenei diruz laguntzea.

II. KAPITULUA
DIRU LAGUNTZAREN NONDIK NORAKOA

2. artikulua.– Agindu honek arautzen duen diru-laguntza euskarazko ikasmaterial inprimatuen prestakuntzan egindako argitalpen-gastuei dago zuzendurik. IV. eranskinean dago zehaztuta zein gastu hartuko diren kontuan.

3. artikulua.– 1.– Ikasmaterial defizitarioei baka-rrik eman ahal izango zaie diru-laguntza. Hots, beren prestakuntza-kostuak 2008-2009 ikasturteko salmenta bidezko diru-sarrerekin, baita prestakuntza-fase partez edo osoz berdinagatik han-hemendik izandako diru-sarrerekin ere, berdindu edo gainditu ezin dituzten ikasmaterialei.

2.– Deialdi honen babesean agindutako laguntzak beste herri-aginteez edo erakunde pribatuek eman ditzaketenekin bateragarriak izango dira, baldin eta 1. idatz-zatian zehaztutako baldintzak betetzen baldin badira.

4. artikulua.– 1.– Deialdira bildu eta baldintza guztiak betetzen dituzten ikasmaterialetako bakoitzari eman beharreko diru-laguntza ezingo da izan ikasmaterial horietako bakoitzarentzat 3. artikuluaaren arabera finkaturiko defizita baino handiagoa.

2.– Nolanahi ere, adierazitako baldintzen araberako defizitak ez dira diruz lagunduko begiz jotako diru-laguntzak hirurehun (300) eurotik beherakoak direnean.

Asimismo, el Decreto 295/1998, de 3 de noviembre (Boletín Oficial del País Vasco n.º 277, de 27 de noviembre), en relación a los materiales escolares a utilizar en los centros educativos de la Comunidad Autónoma Vasca, establece, entre otros aspectos, que se velará por su coherencia con los planteamientos curriculares establecidos por la Administración Vasca, la adecuación a las normas para el correcto uso idiomático y una calidad suficiente en cuanto a sus características técnicas.

Por todo ello,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
OBJETO DE LA SUBVENCIÓN

Artículo 1.– La presente Orden tiene por objeto regular, convocar y, una vez cumplidos los requisitos establecidos en la misma, subvencionar a aquellos materiales escolares impresos en euskera para su uso en los niveles no universitarios.

CAPÍTULO II
NATURALEZA DE LA SUBVENCIÓN

Artículo 2.– La subvención regulada por la presente Orden está dirigida a los costes derivados de la edición de materiales escolares impresos en euskera. En el anexo IV se detallan los gastos que se van a tomar en consideración.

Artículo 3.– 1.– Solo se concederá una subvención a aquellos materiales escolares que resulten deficitarios. Es decir, a aquellos que no igualen o superen los costes de elaboración con los ingresos derivados de la venta de dichos materiales en el curso escolar 2008-2009, así como con los provenientes de otros ingresos recibidos en concepto de elaboración parcial y/o total.

2.– Las ayudas dispuestas en la presente convocatoria son compatibles con las concedidas por otros organismos públicos y entidades privadas, siempre que cumplan los requisitos establecidos en el párrafo primero.

Artículo 4.– 1.– La subvención correspondiente a cada uno de los materiales escolares que, habiéndose acogido a la presente convocatoria, cumplan todos los requisitos establecidos, no será superior al déficit que le corresponda a cada uno de ellos, según lo establecido en el artículo 3.

2.– En cualquier caso, no serán objeto de subvención aquellos materiales escolares a los que correspondiera asignar una subvención inferior a trescientos (300) euros.

III. KAPITULUA DIRU BALIABIDEAK

5. artikulua.– 1.– Xede horri aurre egiteko, milioi bat berrehun eta hirurogei mila (1.260.000) euro erabiliko da. Diru hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2008. urteko Aurrekontu Nagusietan jarritako aurrekontu sailetik hartuko da.

2.– Aurreko idatz-zatian jarritako diru zenbateko osoa aldatu egin daiteke, eskatutako diru-laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beste diru-laguntza programa batzuetan agortu gabe geratu diren aurrekontuen arabera, betiere deialdi honetako diru-laguntzen ebazpena eman aurretik. Aldaketa horren berri, Hezkuntza sailburuordearen Ebazpenaren bidez emango da.

IV. KAPITULUA KUDEAKETA-ORGANOA

6. artikulua.– Honako deialdi honen kudeaketa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari dagokio.

V. KAPITULUA BIL DAITEZKEEN IKASMATERIALAK

7. artikulua.– 1.– Indarrean dauden Unibertsitate aurreko irakasmailetan, bai araubide orokorrekoetan zein araubide berezikoetan, erabiltzekoak diren ikasmaterial inprimatuak hartzen ditu laguntza-deialdi honek kontuan.

2.– Ikasketa-plan edo curriculumarekin lotura zuzena edo zeharkakoa duten ikasmaterial inprimatuen sailean, oinarritz, ondoko hauek hartuko ditu laguntza-deialdi honek kontuan:

a) Oinarritzko ikasmaterialak: irakaslearen gidaliburuak, ikaslearen testu-liburuak, lan-koadernoak eta oinarritzko irakurgaiak.

b) Ikasmaterial osagarriak: kontsulta-liburuak, neurketa-materialak, irakasleen prestakuntzarako materialak, irakasmundurako informazio-gaiak, eskola-aldizkariak, mapak, horma-irudiak, saiakuntza-gaiak eta EIMA II eta III programen bidez lagundutako multimedia-lanen idatzizko osagarriak, gidak edo zuzen erabiltzeko esku-liburuak izan ezik.

8. artikulua.– Euskarazko ikasmaterialak soilik bil daitezke laguntza-deialdi honetara. Hala ere, zenbait jakintzagai eta ikasmaterial-mota (euskara irakasteko metodoak edo gramatikak, hiztegi elebidun edo elea-

CAPÍTULO III DOTACIÓN ECONÓMICA

Artículo 5.– 1.– Se destina al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente Orden, la cantidad de un millón doscientos sesenta mil (1.260.000) euros, con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2008.

2.– El importe global consignado en este artículo podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Educación, Universidades y Educación y con carácter previo a la resolución de las subvenciones correspondientes a esta convocatoria. De la presente circunstancia se hará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Educación.

CAPÍTULO IV ÓRGANO DE GESTIÓN

Artículo 6.– La gestión de la presente convocatoria corresponde a la Dirección de Innovación Educativa del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

CAPÍTULO V MATERIALES ESCOLARES QUE PUEDEN ACOGERSE A LA CONVOCATORIA

Artículo 7.– 1.– Podrán acogerse a la presente convocatoria de subvención aquellos materiales escolares impresos destinados a las enseñanzas no universitarias vigentes, tanto las de régimen general como las de régimen especial.

2.– Respecto a los materiales escolares impresos directamente relacionados con los planes de estudio y el currículum, esta convocatoria está dirigida básicamente a los materiales encuadrados en alguno de los apartados siguientes:

a) Materiales básicos: guías didácticas, libros de texto, cuadernos de trabajo y libros básicos de lectura.

b) Materiales complementarios: libros de consulta, materiales de evaluación, materiales para la formación del profesorado, temas informativos para el mundo escolar, publicaciones periódicas de aplicación escolar, mapas, murales, materiales de ensayo y material complementario escrito en euskera correspondiente a trabajos de multimedia subvencionados por los programas EIMA II y III, excepto guías o manuales de uso.

Artículo 8.– Solamente podrán acogerse a la presente convocatoria de subvención aquellos materiales escolares que están escritos en euskera. No obstante, también podrán acogerse aquellos que, dadas sus características

nitzak, e.a.) partez euskaraz eta partez erdaraz egonik, horiek ere laguntza-deialdira bildu ahal izango dira.

9. artikulua.— Laguntza-deialdira bil daitekeen ikasmateriala, bere originaltasun-mailari dagokionez, honelakoa izan daiteke:

a) Testuari dagokionez: sorkuntza-lana (euskaraz sortua), egokitzapena (batutik bizkaierara edo alderantziz ekarritakoa) edota itzulpena (erdaratik ekarria).

b) Irudi-marrazkiei dagokienez: ikasmaterial hone-tarako berariaz sortua edota beste hizkuntzaren batean argitara emandako ikasmaterialetik hartua.

10. artikulua.— Lehen argitaraldientzat prestaturik dago, berez, diru-laguntza hau. Hala ere, bigarren edo hurrengo argitalpen birmoldatu edo osatuek ere jaso ahal izango dute diru-laguntza, betiere berritutako zatien arabera.

VI. KAPITULUA DEIALDITIK KANPORA UTZIKO DIREN IKASMATERIALAK

11. artikulua.— Laguntza-deialdi honetara ezin izango dira bildu, dena dela, ondoko ezaugarri hauetakoren bat duten ikasmaterialak:

a) Bibliofilo-liburuak.

b) Copyright-a, partez edo osoz, herri-aginteena, zuzenbide pribatuko herri-aginteena, edota herri-aginteen parte-hartze nagusia duten sozietate pribatuena duten argitalpenak.

c) Doan banatzekoak diren argitalpenak.

d) Liburu-klubek edo antzekoek bazkideentzat bakarrik argitaraturikoak.

e) Fotokopia edo multikopia bidez prestaturiko ikasmaterialak.

VII. KAPITULUA LAGUNTZA JASOTZAILEAK

12. artikulua.— 1.— Beharrezko lege-nortasunez horniturik egonik, V. kapituluan aipaturiko ikasmaterial inprimatuak argitaratzen dituzten argitaletxei eta egile-editoreei zuzendurik dago laguntza-deialdi hau.

2.— Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei diru-laguntzak edo laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

así como la asignatura a la que van destinados, estén impresos parcialmente en euskera y otra lengua (métodos de euskera para el modelo A, diccionarios bilingües o multilingües, etc.).

Artículo 9.— En lo referente al grado de originalidad, el material escolar que se acoga a la subvención podrá presentar alguno de los siguientes grados:

a) En relación con el texto: trabajos de creación (expresamente creado en euskera), adaptación (del euskera estándar a la variedad dialectal vizcaína y viceversa) y traducción de otras lenguas al euskera.

b) En relación con las ilustraciones y fotografías: bien expresamente creadas para el material escolar de referencia, bien tomadas de otros materiales.

Artículo 10.— La presente convocatoria está destinada principalmente a las primeras ediciones, por lo que las segundas o siguientes ediciones, renovadas o completadas, podrán ser objeto de ayuda respecto de la parte modificada en relación con la última edición.

CAPÍTULO VI MATERIALES ESCOLARES EXCLUIDOS

Artículo 11.— Quedan excluidos del ámbito de aplicación de esta convocatoria de subvención las siguientes publicaciones:

a) Libros de bibliófilo.

b) Publicaciones cuyo Copyright corresponda parcial o íntegramente a entes públicos, a entes públicos de derecho privado o a sociedades privadas con participación mayoritariamente pública.

c) Publicaciones destinadas a distribución gratuita.

d) Materiales publicados por clubes del libro o similares, destinados a ser distribuidos entre los suscriptores correspondientes.

e) Publicaciones realizadas en base a multicopias o fotocopias.

CAPÍTULO VII DESTINATARIOS DE LAS AYUDAS

Artículo 12.— 1.— Esta convocatoria está destinada a todas aquellas editoriales y autores-editores de material escolar que, estando legalmente constituidas, publiquen alguno de los materiales impresos mencionados en el Capítulo V.

2.— La concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones y ayudas a los beneficiarios de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

3.– Halaber, ezingo dute deialdi honetan parte hartu Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50. artikuluko 5. paragrafoak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatuak, ezarritako arrazoiren baten eraginpean daudenek. Honen haritik, Lege horrek aipatu artikuluan ezarritako arrazoiren baten eraginpean ez dagoela egiaztatzen duen zinpeko aitormena egin beharko du eskatzaileak.

VIII. KAPITULUA LAGUNTZA BIDEAREN EPE BARRUTIA

13. artikulua.– 1.– 2007ko irailaren 15etik 2008ko irailaren 12ra bitartean argitaraturiko ikasmaterial inprimatuak bildu ahal izango dira honako laguntza-deialdi honetara.

2.– Argitalpen-data moduan zera hartuko da: lege-gordailuan ikasmaterialak aurkeztutako eguna (M-5 dokumentua).

IX. KAPITULUA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

14. artikulua.– 1.– Eskabide-orriak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

2.– Sarrera-eguna eskabide-orrian bertan emango den sarrera-zigilu ofizialarena izango da. Eskabide-orri- an botatako posta zertifikatuaren zigiluak balio bera izango du.

3.– Hezkuntza Sailburuordetzak eskabidean hutsik edo akatsik antzematen badu, eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango dio huts edo akats horiek zuzentzeko. Hamar egunen buruan zuzentzen ez baditu, eskatzaileak eskaerari uko egin diola ulertuko da, 4/1999 Legearen 42. artikulua aurreikusitako moduan idatzi beharreko ebazpena eman ondoren.

X. KAPITULUA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

15. artikulua.– 1.– Laguntza-deialdira bildu nahi duen orok I. eranskinean jasotako eskabide-orria zuzen bete beharko du eta, argialetxearen legezko ordezkariak edota egile-editoreak adostasun-agiria izenpetu ondoren, deialdi honen 16. artikuluan adierazitako dokumentazioarekin batera aurkeztu.

2.– Eskabide-orri hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web-orrian (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) eskura daiteke. Hala nahi izanez gero, eranskinean jasotako ereduaren kopia erabil daiteke.

3.– Por otro lado, no podrán concurrir a las ayudas reguladas por la presente Orden quienes se hallen incurso en algunas de las causas establecidas en el apartado 5 del artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, modificado por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. A este respecto, los solicitantes deberán presentar una declaración jurada en la que acrediten que no se encuentran en ninguna de las causas descritas en el citado artículo.

CAPÍTULO VIII ÁMBITO TEMPORAL DE LAS AYUDAS

Artículo 13.– 1.– Podrán acogerse a la presente convocatoria aquellos materiales escolares que se publiquen en el período comprendido entre el 15 de septiembre de 2007 y el 12 de septiembre de 2008.

2.– Como fecha de publicación se tomará en cuenta la fecha en que se hayan presentado los materiales publicados en el Depósito Legal (documento M-5).

CAPÍTULO IX PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Artículo 14.– 1.– El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a contar a partir del día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– La fecha de entrada de la solicitud será la misma que figure en el sello de entrada estampado en el impreso de solicitud. El sello de correspondencia certificada estampado en dicho impreso surtirá los mismos efectos.

3.– Si la Viceconsejería de Educación advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto o inexactitud, lo comunicará a la persona solicitante, concediéndole un plazo de diez días para que proceda a su subsanación. Transcurrido dicho plazo sin haber procedido a la subsanación, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 4/1999.

CAPÍTULO X DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

Artículo 15.– 1.– Las editoriales y autores-editores interesados en participar en la presente convocatoria de subvención deberán cumplimentar correctamente el impreso de solicitud y, una vez firmada la declaración de conformidad por quien ostenta la representación legal de la editorial, deberá presentarse junto con la documentación indicada en el artículo 16 de esta convocatoria.

2.– Dicho impreso podrá obtenerse en la página web del Departamento de Educación, Universidades e Investigación (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net). Quien lo desee podrá realizar cuantas copias desee del modelo anexo.

3.– Eskabide-orriok, ahal dela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egoitzaren batean aurkeztuko dira, nahiz tokian tokiko Ordezkaritzan, nahiz Gasteizko egoitza nagusian, bertako Euskara Zerbitzuaren EIMA I programan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz). Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan zehazten duen edozein bulegotan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

4.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako diru-laguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonen deialdiaren garapeneri buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze-eskubideak erabiltzeko Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonen fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazioei uzteko baimena ematen dute, deialdi honen xede berdinetarako bakarrik eta, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari baimena ematen diote, beste erakunde publiko batzuetan, aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

16. artikulua.– 1.– Eskabide-orriarekin batera honako material eta dokumentuok aurkeztu beharko ditu, ezinbestean, laguntza-eskatzaileak:

- a) Argitara emandako ikasmaterialaren bina ale.
- b) Ikasmaterial bakoitzari dagozkion ISBNa eta lege-gordailua (M-5 inprimakia) egin izanaren agirien kopiak.
- c) Ikasmaterial jakin bakoitza prestatzen eta argitaratzen egindako gastu mekanikoen laburpen zehatza. Ebazpena eman baino lehen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak gastu horien justifikazioa eskatu ahal izango du; horretarako, beharrezkoa denean, lan horiek aurrera eraman dituen enpresak luzatutako fakturak eskatuko ditu.
- d) Aurkeztutako materiala argitaratzeko beharrezko egile-eskubideak edota egile-baimenak dituela ziurtatzen duen zinpeko aitormena, enpresaren legezko ordezkariak sinatuta.

3.– Dichos impresos se presentarán preferentemente en el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, bien en cualquiera de sus Delegaciones Territoriales, bien en su sede central (c/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Programa EIMA I del Servicio de Euskera). Asimismo podrán presentarse en cualquiera de las dependencias señaladas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y con la Ley 2/2004, de 25 de febrero, Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, los datos personales recogidos en la tramitación de esta convocatoria, cuyo tratamiento y publicación es autorizado por los y las participantes en la misma, serán incluidos en un fichero cuyo objeto será gestionar la presente convocatoria de subvenciones y cualquier otro procedimiento o expediente administrativo relacionado con la misma, así como para informar a las personas concurrentes a dicha convocatoria de su desarrollo. La responsable de este fichero es la Dirección de Innovación Educativa. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante la Dirección de Innovación Educativa, dirigiéndose para ello a la siguiente dirección: calle Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Asimismo, las personas concurrentes a esta convocatoria dan su consentimiento a la cesión de datos personales contenidos en el fichero a otras administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco para finalidades coincidentes con el objeto de la convocatoria y autorizan a la Dirección de Innovación Educativa a comprobar en otros organismos públicos la veracidad de los documentos presentados.

Artículo 16.– 1.– Los solicitantes deberán aportar, junto al impreso de solicitud, la siguiente documentación:

- a) Dos ejemplares de cada material escolar impreso.
- b) Fotocopia de los comprobantes de haber efectuado el ISBN y el depósito legal (impreso M-5).
- c) Relación detallada de los gastos realizados en la preparación y publicación del material escolar. Antes de dictar la Resolución, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación podrá solicitar la justificación de dichos gastos; para ello, cuando sea necesario, solicitará las facturas extendidas por la empresa o empresas que hayan participado en su elaboración.
- d) Declaración jurada firmada por la persona que ostente la representación legal de la empresa, que certifique la posesión de los derechos de autor o licencias de autor necesarios para formalizar el proyecto presentado.

e) Laguntza-eskatzaileak banaketa-enpresari luzatutako faktura edo harekin sinatutako kontratua, ikasmateriala bana dezan. Dokumentu horretan azaldu beharko du merkatari-prezioak. Bestalde, ikasmaterial horrek erdarazko bertsioa baldin badauka, horren banaketarako dokumentua ere aurkeztu beharko da.

2.– Honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko ditu laguntza-eskatzaileak, ezinbestean:

a) Eskatzailea egile-editore beregain bat denean, bere NANaren kopia egiaztatua.

b) Eskatzailea argitalpen-enpresa bat denean (onda-re-elkartea, SA, SM), enpresa-sortzearen akta edo eskritura, legezko ordezkariaren izendapen-eskritura eta bere NANaren kopia egiaztatua aurkeztu beharko da.

c) Enpresen kasuan, IFZren kopia egiaztatua.

d) Enpresen kasuan, Gizarte-segurantzaren ordaintetan egunean egotearen ziurtagiri originala.

e) Dagozkion zergen ordainketan egunean egotearen ziurtagiri originala, kasuan kasuko Foru Aldundiak edo Hazienda Publikoak sinatua.

3.– Kopia egiaztatuen ordezkariak aurkeztuz gero, eta eskatzaileak hala eskatzen badu, original horiek itzuli egingo zaizkio beharrezko tramiteak egin ondoren.

4.– Eskatzaileak eskabide-orri bat baino gehiago aurkezten duenean, artikuluko honen bigarren idatz-zatian eskatutako dokumentazioa bakarra izan daiteke eskabide-orri guztientzat.

5.– Eskatzaileak 2. idatz-zatik b) eta c) puntuetan adierazitako dokumenturen bat edo beste administrazio honetan lehenago ere aurkeztua baldin badu, eta orduan hona bost urte igaro ez badira, ez du nahitaz berritatu behar aurkeztu behar izango. Nahikoa du delako dokumentu hori zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu duen Hezkuntza Sailburuordetzari adieraztea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 35. atalean agindutakoari jarraituz.

XI. KAPITULUA LEGE BALDINTZAK

17. artikulua.– Argitaratutako ikasmaterialek indarrean dauden lege-eskakizunak bete behar dituzte jabe-gore intelektuari, egile-eskubideei, lege-gordailuari, banaketari eta abarri dagokienez. Arau horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaz kanpoko erakundeen esparrukoak direla kontuan izanik, eskakizun horiek bete direla ziurtatzen duen dokumentazioa eskatzerik mugatuko dira egingo diren zehaztapenak.

e) Factura expedida por el solicitante a la empresa distribuidora o contrato firmado por ambas partes para la distribución del material escolar en el que conste el precio de distribución del mismo. Del mismo modo, si dicho material tiene versión en castellano, también deberá presentarse el documento de distribución del mismo.

2.– Además de los anteriormente mencionados, el solicitante deberá presentar los siguientes documentos:

a) Cuando sea un autor-editor independiente, una fotocopia compulsada de su DNI.

b) Cuando se trate de una empresa editora (Comunidad de bienes, S.A., S.L.) deberá presentarse el acta o escritura de constitución de la misma, escritura de nombramiento de su representante legal y fotocopia compulsada de su DNI.

c) Cuando sea una empresa, fotocopia compulsada del NIF.

d) Cuando sea una empresa, certificado original de estar al corriente de pago con la Seguridad Social.

e) Certificado original expedido por la Diputación Foral correspondiente o por la Hacienda Pública acreditando estar al corriente en las obligaciones tributarias.

3.– Si en lugar de las copias compulsadas se presentase documentación original, ésta será devuelta si así lo requiere la parte interesada, una vez realizados los trámites pertinentes.

4.– En el caso de que una editorial presente más de un impreso de solicitud, la documentación requerida en el apartado 2 podrá ser única para todos los impresos.

5.– Cuando cualquiera de los documentos citados en los puntos b) y c) del apartado 2 hubieran sido presentados con anterioridad en esta Administración y no hubieran transcurrido cinco años desde su presentación, la editorial en cuestión, de acuerdo al artículo 35 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, relativa al Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, no estará obligada a presentarlo de nuevo. Bastará con que indique a este Departamento el día y lugar en el que lo hizo.

CAPÍTULO XI REQUISITOS LEGALES

Artículo 17.– Los materiales escolares realmente producidos deberán cumplir los requisitos legales relativos a la propiedad intelectual, derechos de autor, depósito legal, distribución, etc. Teniendo en cuenta que dichas normas emanan de ámbitos ajenos al Departamento de Educación, Universidades e Investigación, las diligencias a realizar se limitarán a solicitar la documentación que justifique el cumplimiento de los requisitos citados.

XII. KAPITULUA
EGOKITASUN BALDINTZAK

18. artikulua.– 1.– Deialdi honen bidez lagundutako ikasmaterialek guztiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren onespina izan beharko dute, ezinbestean, ikasmaterialek onspen-bidea arautzen duen azaroaren 3ko 295/1998 Dekretuak zehaztutakoaren arabera. Hori dela-eta, inprimaketa-lanari ekin aurretik, esandako Dekretu horretan finkatutako egokitasun-azterketa gainditu egin beharko du edozein ikasmaterialek eta zuzendu beharreko akats eta oker guztiak jaso eta zuzendu bere baitan.

2.– Hezkuntza Sailburuordetzak onetsitako ikasmaterialek egoera hori adierazten duen esaldi hau eraman-go dute inprimaturik, ongi ikus daitekeen tokian eta ale guztietan: «Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (Onspen-data)».

19. artikulua.– Hezkuntza Sailburuordetzak ikasmaterialek bati emandako onspena azaroaren 3ko 295/1998 Dekretuaren 19. artikuluan zehaztutakoari jarraituz balio gabetzea erabakiko balu, hiru jokabide hauetakoren bati ekingo litzaioke: diru-laguntza ukatu, esleitutako diru-laguntza galdu edota lehendik emandakoa atzera itzul dezan agindu, betiere 34. artikuluan aipatutako prozeduraren arabera.

XIII. KAPITULUA
TIRADA BALDINTZAK

20. artikulua.– Laguntza-deialdi honetara bildu ahal izateko, ikasmaterialek orok, bezeria potentzial jakinik ez duten ikasmaterialek izan ezik, gutxienezko tirada bat izan beharko du. Agindu honen II. eranskinean finkaturik dago ikasmaterialek bakoitzeko gutxienezko tirada-indizea. Gutxienezko tirada-indize horren bidez, 2008-2009 ikasturterako begiz jotako bezeria potentzialaren kopurua kontuan izanik, gutxienez kopuru hori halako zenbat aleren tirada egin beharko den adierazi nahi da.

21. artikulua.– 1.– Ikasmaterialek bakoitzarentzat 2008-2009 ikasturterako begiz jotako bezeria potentziala kontuan izanik, kopuru jakin baterainoko tiradak bakarrik estaliko ditu Hezkuntza Sailburuordetzak bere diru-laguntzaz. Kopuru jakineko goi-muga hori finkatzeko gehieneko estalpen-indizea erabiliko da gidari, Agindu honen II. eranskinean zehaztutakoaren arabera. Gehieneko estalpen-indize horren bidez, 2008-2009 ikasturterako begiz jotako bezeria potentziala kontuan izanik, gehienez kopuru hori halako zenbat ale estaliko den adierazi nahi da.

2.– Hala ere, Lanbide Heziketako Zikloetan erabiltzekoak diren ikasmaterialek, ziklo horietako dibertsifikazioaren ondorioz dagoen jakintzagai-ugalketa, ikasmaterialek-urritasuna eta ikasle-murrizketa kontuan izanik, tirada osoa onartuko zaie.

CAPÍTULO XII
REQUISITOS DE IDONEIDAD

Artículo 18.– 1.– Los materiales escolares subvencionados mediante esta convocatoria habrán de contar necesariamente con la correspondiente autorización del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, según lo establecido en el Decreto 295/1998, de 3 de noviembre, sobre autorización de materiales escolares. En consecuencia, dichos materiales habrán de superar, con anterioridad a su impresión, el análisis de idoneidad establecido en dicho Decreto.

2.– Los materiales escolares autorizados por la Viceconsejería de Educación deberán incluir, en un lugar visible así como en todos los ejemplares de la tirada, la siguiente expresión: «Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (fecha de la autorización)».

Artículo 19.– La revocación, por parte de la Viceconsejería de Educación, de la autorización previamente concedida a determinado material escolar en base al artículo 19 del Decreto 295/1998 de 3 de noviembre, conllevará la imposibilidad de percibir subvención dentro de la presente convocatoria, o bien la pérdida de la subvención adjudicada o, en su caso, la devolución de la cantidad percibida, todo ello de acuerdo al procedimiento establecido en el artículo 34.

CAPÍTULO XIII
REQUISITOS DE TIRADA

Artículo 20.– Todo material escolar que se acoja a la presente convocatoria deberá realizar una tirada mínima, salvo en el caso de los materiales escolares sin una clientela potencial concreta. El índice de tirada mínima viene fijado en el anexo II de la presente Orden. Mediante dicho índice, y considerando la clientela potencial estimada para el curso escolar 2008-2009, se establece el número mínimo de ejemplares a editar.

Artículo 21.– 1.– Atendiendo a la dimensión de la clientela potencial estimada para el curso escolar 2008-2009, la Viceconsejería de Educación subvencionará solamente la tirada de un determinado número de ejemplares. Para ello habrá de ajustarse al índice de cobertura máxima que viene fijado en el anexo II de la presente Orden, de forma que dicho índice, así como la clientela potencial prevista para el curso correspondiente, sirvan de base para establecer el número de ejemplares a subvencionar.

2.– No obstante, visto el elevado número de asignaturas, la escasez de material y el reducido número de alumnos y alumnas de los Ciclos de Formación Profesional, derivados del alto grado de diversificación de los mismos, se tendrá en cuenta el número total de ejemplares editados.

3.– Bezeria potentzial jakinik ez duten ikasmateria-
len kasuan, Hezkuntza Sailburuordetzak gehienez ere
8.000 aleko tirada estaliko du.

22. artikulua.– Hezkuntza Sailburuordetzak, es-
kabide-orrian adierazitako tirada benetakoa dela ziur-
tatzeko, faktura edo bestelako dokumentu bidezko
egiaztatze-lana egin ahal izango du.

XIV. KAPITULUA BALDINTZA EKONOMIKOAK

23. artikulua.– Deialdi honetara biltzen diren ikas-
materialak merkaturatu egin beharko dira, jendaurreko
banaketa-zirkuitu irekietan jarritz. Baldintza honek zera
dakar berekin: egindako tiradaren parte bat behintzat
liburu-dendetan salgai jarriko dela, edozein hiritarrek
erosteko moduan. Horren ondorioz, Hezkuntza Sail-
buruordetzak baldintza horren betetze-maila ikuskatu
egin ahal izango du laguntza finkatu aurretik.

24. artikulua.– 1.– Ikasmaterial bakoitzaren mer-
katari-prezioa, BEZ barne, egokia den edo ez neurtzeari
dagokionez, ikasmaterial horren gaztelaniazko bertsio-
aren prezioarekin duen parekotasuna hartuko da kon-
tuan.

2.– Ikasmateriala euskaraz sortua baldin bada eta ez
baldin badauka gaztelaniazko bertsiorik, $n_4 = 1$ ponde-
razio-indizea aplikatuko da.

XV. KAPITULUA LAGUNTZEN KUDEAKETA

25. artikulua.– Argitaletxeek laguntza-eskabidea
egin eta diru-laguntzak ordaindu artean gerta litezkeen
gorabeherak bideratzeko Jarraipen-batzorde bat eratuko
da.

26. artikulua.– Jarraipen-batzordea honako kide
hauz osatuko da:

- Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria (batzordea-
ren buru).
- Euskara Zerbitzuaren burua.
- EIMA I teknikaria (batzordearen idazkari).

XVI. KAPITULUA DIRU LAGUNTZEN KALKULUA, EBAZPENA ETA ORDAINKETA

27. artikulua.– 1.– Aurkeztutako ikasmaterialak
jaso ondoren, ikasmaterial horiek dagozkien eskabide-
orrietan azaldutako datu tekniko eta ekonomikoekin
agertzen duten adostasun-maila neurtuko du Hez-
kuntza Sailburuordetzak, besteak beste ondoko puntu

3.– En el caso de los materiales escolares sin una
clientela potencial concreta, la Viceconsejería de Educa-
ción subvencionará una tirada máxima de 8.000 ejem-
plares.

Artículo 22.– La Viceconsejería de Educación, con
el fin de verificar la veracidad de la tirada manifestada
en la hoja de solicitud, podrá realizar las comprobacio-
nes necesarias a través de las facturas o de otro tipo de
documentos.

CAPÍTULO XIV REQUISITOS ECONÓMICOS

Artículo 23.– Todo material escolar que se acoja a
la presente convocatoria habrá de comercializarse a tra-
vés de circuitos de distribución abiertos al público, de
manera que, al menos, una parte de la tirada realizada
estará al alcance de cualquier comprador en las libre-
rías, al precio indicado en el impreso de solicitud. A tal
fin, la Viceconsejería de Educación podrá comprobar el
cumplimiento de dicho requisito con anterioridad al es-
tablecimiento de la ayuda económica correspondiente.

Artículo 24.– 1.– En cuanto a la idoneidad del pre-
cio de distribución, incluido IVA, de cada material es-
colar, será tenido en cuenta su relación con respecto al
precio de la versión en castellano de dicho material.

2.– Si el material ha sido creado en euskera y además
no tiene versión en castellano, se aplicará el índice de
ponderación $n_4 = 1$.

CAPÍTULO XV GESTIÓN DE LAS AYUDAS

Artículo 25.– Una Comisión de Seguimiento creada
al efecto será la encargada de llevar a cabo el control de
los proyectos y gestionar las distintas incidencias que
pudieran darse, desde la presentación de las solicitudes
de ayuda hasta la realización del pago de las subvencio-
nes.

Artículo 26.– La Comisión de Seguimiento estará
formada por:

- El Director de Innovación Educativa, en calidad
de presidente de la Comisión.
- El jefe del Servicio de Euskera.
- El técnico del programa EIMA I, en calidad de
secretario de la Comisión.

CAPÍTULO XVI CÁLCULO, RESOLUCIÓN Y PAGO DE LAS SUBVENCIONES

Artículo 27.– 1.– Una vez esté en posesión de los
materiales escolares de referencia, la Viceconsejería de
Educación procederá a cotejar los datos técnicos y eco-
nómicos detallados en los impresos de solicitud con los
correspondientes a los materiales impresos, especial-

hauek bereziki aztertuz: onespina, xedea, kostu mekaniakoak, ezaugarri teknikoak, merkatari-prezioa, tirada eta salmenta kopurua.

2.– Deialdian zehar aipaturiko baldintzak betetzen dituzten ikasmaterialen adostasun-neurketa egin eta, eskatzaileak eskabide-orrian zehaztutako datuen inguruan beharrezkoak diren zuzenketak egin ostean, zeregin horretaz arduratuko den Ebazpen-batzordeak ikasmaterial bakoitzari dagokion diru-laguntzaren proposamena finkatu eta arrazoituko du eta, ondoren, ebazpen-proposamena egingo du.

3.– Diru-laguntza zehatza Hezkuntza Sailburuordetzak langintza honetarako duen laguntza-partida III. eranskinean ezarritako formularen arabera banatuz zehaztuko da. Nolanahi ere, diru-laguntza hori ezingo da izan finkaturiko defizitariotasun-maila baino handiagoa.

28. artikulua.– 1.– Esandako Ebazpen-batzordea honako kide hauez osatuko da:

- a) Hezkuntza sailburuordea, batzordearen buru.
- b) Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria.
- c) Euskara Zerbitzuaren burua.
- d) Ikasketen Antolamendurako Zerbitzuaren burua.
- e) EIMA I programaren teknikaria, batzordearen idazkari.

2.– Batzorde horren aholkulari gisa, benetan produkturiko ikasmaterial bakoitzaren balorazio ekonomiko egiteko, jakitun beregain edo profesionalak kontuan hartu ahal izango dira.

29. artikulua.– 1.– Goian aipatutako ebazpen-proposamena lantzeko, Ebazpen-batzordeak III. eranskinean azaldutako faktoreetan eta horiei dagozkien ponderazio-indizeetan oinarrituko du bere lana.

2.– Defizitariotasun-maila zehazteko, argitaletxeak edo egile-editoreak aurkezturiko datuez gainera, Ebazpen-batzordeak kontuan izango ditu EAEko argitalpen-alorrean adituak diren bi aholkularik azaldutako kostu-estimazioak. Estimazio horiek egiteko orduan, Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusian, deialdia argitaratzen den egunean, argitalpenetarako indarrean dauden prezioak hartuko dira oinarri, alde batetik; bestetik, ikasmaterialgintzaren berariazko kostuak. Lan hori egiteko, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak izendaturiko aholkulariak erabiliko ditu Ebazpen-batzordeak.

3.– Kalkuluak egiteko prozedurari dagokionez, III. eranskinean ezarritako transformazio-taula landuko da.

30. artikulua.– 1.– Ebazpen-batzordearen proposamena kontuan izanda, laguntza-deialdi hau ebatziko du Hezkuntza sailburuordeak, ikasmaterial bakoitzari

mente los relativos a la autorización, finalidad, costes mecánicos, características técnicas, precio de distribución, tirada y volumen de venta.

2.– Una vez comprobado el cumplimiento de los requisitos exigidos en la convocatoria y realizadas cuantas correcciones procedan en relación a los datos consignados en los impresos de solicitud, la Comisión de Resolución procederá a determinar la cuantía económica que le corresponde a cada material escolar y, tras razonarlo debidamente, realizará una propuesta de resolución.

3.– La subvención se determinará distribuyendo la partida presupuestaria que a este efecto tiene destinada la Viceconsejería de Educación de acuerdo con la fórmula contenida en el anexo III. En cualquier caso, la subvención asignada no podrá ser mayor que el grado de deficitariedad anteriormente determinado.

Artículo 28.– 1.– Dicha Comisión de Resolución estará formada por:

- a) El Viceconsejero de Educación, en calidad de presidente de la Comisión.
- b) El Director de Innovación Educativa.
- c) El jefe del Servicio de Euskera.
- d) El jefe del Servicio de Ordenación Académica.
- e) El técnico del programa EIMA I, en calidad de secretario de la Comisión.

2.– En relación con la valoración económica de los materiales escolares producidos, podrán actuar en calidad de asesores de dicha comisión diferentes profesionales o peritos independientes.

Artículo 29.– 1.– Al objeto de elaborar la propuesta de resolución indicada, la Comisión de Resolución se servirá de los factores reseñados en el anexo III así como de los índices de ponderación que les corresponden.

2.– Al objeto de determinar el nivel de déficit, la Comisión de Resolución establecerá el coste ponderado para cada caso, en base a la información económica aportada por la persona o empresa editora solicitante así como la estimación de los costes realizada por dos expertos de la CAPV en la edición de material impreso. Para llevar a cabo dicha estimación, se tendrán en cuenta, por un lado, los precios en vigor, a la publicación de esta convocatoria, para las publicaciones en el Servicio General de Publicaciones del Gobierno Vasco y, por otro lado, los costes específicos de la producción de materiales escolares. Para realizar dicha labor, la Comisión de Resolución se valdrá de asesores nombrados por el Viceconsejero de Administración y Servicios.

3.– En lo referente al procedimiento de cálculo, se elaborará una tabla de transformaciones de los datos recabados, conforme se establece en el anexo III.

Artículo 30.– 1.– El Viceconsejero de Educación, teniendo en cuenta la propuesta efectuada por la Comisión de Resolución, dictará Resolución sobre esta con-

dagokion diru-laguntza zehatza adieraziz. Ebazpena EHAAan argitaratuko da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta sei hilabeteko epean beranduenik.

2.– Era berean, horren berri emango zaio laguntza-eskatzaile bakoitzari.

31. artikulua.– Laguntza-eskatzaileetako bat edo gehiago hartutako erabakiarekin ados ez badago eta gora jo nahi badu, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean gorako errekurtsioa egiteko aukera izango du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren aurrean. Hala ere, esandako epean ebazpenik eman ezean, isiltasuna ezezko erantzuna balitz bezala jokatu da.

32. artikulua.– Diru-laguntzak aldi bakar batean ordainduko dira ebazpena EHAAan argitaratu ondoren.

XVII. KAPITULUA
LAGUNTZA-JASOTZAILEEN
BETEBEHARRAK

33. artikulua.– Deialdi honen bidez jasotako diru-laguntzen inguruan Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edota Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, bere eginkizunak betez, eskatutako informazio guztia eman beharko dute laguntza-jasotzaileek.

34. artikulua.– Agindu honetan finkatutako edozein eginkizun ez betetzeak edota laguntzak lortzeko ezarritako baldintzetan gezurretan ibiltzeak, jokabide horien ondorioz gerta daitezkeen erantzukizun penalak baztertu gabe, agindutako diru-laguntza galtzea ekarriko du; baita, hala legokiokeen kasuan, aurretik jasotako diru-kopurua atzera itzuli beharra ere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak onartzen duen bezala, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak (EHAA, 1992ko otsailaren 7koa) zehaztutako prozeduraren arabera dagozkion legezko interesak gehituz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetako euskal eta erdal idazkien artean interpretazio-auzirik sortuz gero, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik, hura hartuko da korapiloa askatzeko gidari.

Bigarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen Agindu honen aurka, interesdunek, aukeran, berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza,

vocatoria con determinación expresa de la subvención que corresponda a cada material escolar. Dicha Resolución será publicada en el BOPV en el plazo de seis meses desde la publicación de la Orden en el Boletín Oficial de País Vasco.

